


Juan San Martin Liburutegia
“Idazlearekin harixa emoten”



NOBELA ERREALISTA BAT

Joxean Agirre, Elkar, 2020

Iruzkina: Antxon Narbaiza, 2021-02-02



Wikipedia

<https://labur.eus/yAp3a>

Auñamendi

<https://labur.eus/bI2II>

Sinopsia

Josean Agirrek idatzi duen eleberria 1. pertsonan idatzia, taxilari bizkaitar baten inguruan ari da. Ez da ohiko taxilari bat, edo agian bai. Biografiak irakurtzea gustatzen zaio eta, bezeroekin berriketa zalea da. Nobelak garapen bitxia dauka. Hasteko, etxeko arazo baten aurrean gaudela dirudi: protagonista nagusia ezkondata dago eta ez du seme-alabarik. Emaztea, beste gizonezko batekin maitemindu da, baina, horregatik ez da bikotearen arteko inolako haserrerik ageri. Ez da beraz, beraien artean inolako banatze prozesurik antzematen ez eta aparteko enfrontamendurik ere. Egia esatera, emazteak ez dio senarrari bere erabakiaren inolako argitasunik eman, beraz, alde horretatik diskrezioa da nagusi. Esan dezagun laburki halaber ez taxilariak ezta bere emaztea denak ere ez dutela nobelan izenik. Gainerakoak oker ez bagaude, izenarekin datoz. Maitalearen izena ere ematen da Agirrezabal izeneko gizasemea dugu.

Eta oraintxe dator ehuna, trama. Emaztearen infidelitatearen harian hiru gertakari izango dira taxilariaren bizitza erabat aldatuko dutenak:

1.- Taxilariaren bizitzan errutinak agintzen duela dirudi: taxia hartu eta jendea handik hona eramane. Baina taxilariak irakurtzea du zaletasun. Biografiak irakurri eta, gero, bezeroei kontatzen die haren mamia, hain itxuraren arabera aukeratzen duelarik zer-nolako pasadizorekin hasi. Emazteari dagokionez, hark bere maitalearekin sendotzen ari da harremana. Berez, edozeinen bizimodua alda lezakeen gertakaria da zalantzarik gabe bikote banaketa. Ez baina kasu honetan dirudienez nabarmenegia modu afektiboan, behintzat. Aitzitik, beste alde batetik dator albistea: emaztearen amoranteak idaztea du zaletasun ia erabatekoa. Idazletzat du bere burua.

2.- Amorantea nobela errealista bat idazten ari da. Hori dio behintzat berak. Horixe du bere asmoa. Ezaugarri batek berresten du arestian aipaturikoa: hark idazten diharduen nobelaren gaia politikoki konprometitua eta:

3.- Edo nahiago bada, aurrekoarekin lotura zuzena duena. Ezusteko handiena oraingoz. Amorantearen nobelako protagonista, hura ere, taxilari bat da –taxizale, deitzen du narratzaileak, Gipuzkoako euskalkian bezala–, beraz, langaiak gure taxilariaren bizitzatik hartua dirudi. Gainera, taxilariari (hezur haragizkoari) argumentua ebatsi dio zelanbait Agirrezabal nobelagileak: Mikel Lejarza dugu “El Lobo” gaitzizenez sator edo “topoa” ETA erakundearen barruan murgildu eta atxiloteta asko bideratu zizkiona poliziari (errealitatea). Zertzelada honek eragina izango du eleberriaren bilakaeran, hain zuzen, jarraian zehaztuko dugun pasadizoan.

Kontakizunaren crescendoa

Egun batez etxetik gertu Izeta sagardotegian (leku erreala) afaldu eta etxerantz datozela argitaletxeko arduradunekin, maitalearen autoak istripua izango du. Agirrezabal hilik gertatuko da.

Istripua izan ote da ala norbaitek nahita atzetik jo eta Agirrezabalen autoa maldan behera amilarazi du beronen herioa ekarriz? Nork hil du, nola hil da? Istripuan bertan amorantearen heriotzarekin batera, Maider argitaletxeko buruetako bat gogor gertatuko da zaurituta.

Beste neska protagonistetako bat, Leire izeneko neska, taxilariak lagun egingo duena, hura ere Agirrezabalen nobela argitaratuko duen argitaletxekoa da, eta, hark eta taxilariak susmoa dute ez ote diren eskuin muturrekoak errudun haren herioan. Nobelaren ehunak izen-abizenak aipatzen baititu (errealak), hain zuzen, eleberriko gaiarekin lotura zuzena dutenak. Gauzak horrela, arazoa argitu guran Gaztela aldera abiatzen dira Leire eta taxilaria hilketa izan daitekeen erantzulea ezagutzera, susmoak egia ote diren baieztatzerara. Baina aurretik liburuaren editorearen eskaintza harrigarria dago: taxilariak nobelaren epilogoia idatziko du.

Errealismoa literaturan: eztabaida antzua?

Joxean Agirrek nobela errealista deitu duen honekin gure ustez definizioen egia erdia salatu nahian dihardu. Izan ere, zer da nobela errealista bat? Posible ote da nobela errealista bat egitea? Non geratzen da orduan eleberrri batek fikziozko zerbait behar duela eleberrri deitzeko baieztatzen denean?

Eleberrriaren egileak plazaratzen digun izenburuan, baiezko esaldi batekin hasten da: Nobela errealista bat.

Erronka adierazirik dator. Ez da galdekizuna, ez dago zalantzarik. Baina nago baieztapenak probokazio bat duela azpian. Guri behintzat agertzeko gogoia ematen digu: ba ote da nobela errealistik?

Errealismoa XIX. mendean sortu zen Frantzian. Erromantizismoa, sentimentalkeriaren (?) aurkako joera bezala zetorren. Hots, esaten zuten, errealismoaren joera hura gauza zen errealitatea ahal zenik eta era fidelenean papereratzeko: “peindre le réel sans l’idéaler”. Hau da, errealitatea margotu hura idealizatu gabe. Baina errealismoaren eredua izan zena XIX. mendean, Honoré de Balzac idazleak *Giza komedia* idatzi zuen zeinetan aintzat hartzen baititu gizakiaren izaera gehienak ispilu guztiz errealistak eginez. Balzacek bere garaikideen bizitzako zati inportanteaz idazten du. Baina hori esan ondoren nobela

errealista al da berea? Ezinezkoa, literaturak definitzen dituen ezaugarriak hor daude: epitetoak, hiperboleak, metaforak, sinestesiak..., horrelakorik gabe eraiki ote liteke nobela bat?

Agirrereren eleberria zatikatuko bagenu. Hona zer osagai aurkitzen ditugun. Beti ere, gure ikuspegitik –hasten gara subjektuaren arabera errealitatea baldintzatzen– gure protagonista nagusia erabat, izenik ezagutzen ez dugun Erandioko bizkaitar taxilari bat da (erreala). Bere langintzan era askotako bezeroak ezagutuko ditu. Biografia zalea, haren hitzorduak bezeroekin, Euskal Herriko pertsonaiak –politikoak gehienbat– aipatuz, hornitzen ditu. Errealismo gordinean jarraitzen du, baina bat-batean, taxilariaren monotonía eten egingo da emazteak amorantea duela jakiten duenean.

Behin “aurkikuntza minbera” hura izan duelarik, gertakariak aurreikuspen norabide guztiz ezohikoak hartzen dituzte (fikzioa?). Infidelitateaz deus gutxi arduratzen da taxilaria. “Odolik” isuri ez duen adar jotzea dago. Interes askoz handiagoa sorrarazten dio emaztearen maitalea Agirrezabal nobelagilea dela jakitea, are gehiago haren tematika oso hurbiletik ezagutzen duela egiaztatzen duenean.

Idazlearen bizitzak auto istripu susmagarri batean galtzeak, kalte absolutua dakarkio Agirrezabali jakina, baina, era berean, birbaloratze baikorra haren eleberriari. Arrakasta handia da, tamalez, *post mortem*, heriotza ondorengoa.

Leire argitaletxeko neska pertxentak, protagonista nagusiaren nolabaiteko lur hartzea ekarriko du errealitatean. Taxilariak badaki, adinak ez duela barkatzen eta, horren autokritikaren ondoren (errealitatea) etorriko da eleberriko unerik *suspensedun* handiena. Nobelaren unerik liskartsuena dugu: jolastoki-putetxean gertatzen dena eta ondorengo auto-ehiza etengabeaz *crescendo* azkarrean igaroko dira, nobelaren azkentzea susmatzen dugula.

Errealismoa eta taxilaria

Errealismoaz ari garelarik, zuzen edo zeharka, bitxia da taxilariaren figura aztertzea. Izenik ematen ez zaion kotxe gidari honen *crescendo* intelektuala onartuko luke errealismoaren ustezko galbaheak? Literaturan beti onartu izan dugu, lan baten egiantzakotasuna, hots, gaztelaniaz “verosimilitud” deitzen dugun terminoaren abaroan.

Verus (egia) eta similus (antzekoa) latinetiko hitzek ematen digute bide errealismora hurbiltzeko. Hau da, egia izan gabe hari hurbiltzen dena. Gure azter lanera itzuliz, nobelaren hasieran, biografia aski arruntak eta ematen dituen argitasunak isuri ditu protagonistak. Geroago datoz hari gidoigileak ematen dizkion lizentziak: taxilariak

literatur irizpide garbiak ditu bai eta epilogo bat idazteko gaitasuna ere. Agian ohikoak ez diren trebezia intelektualen jabe den taxilaria izan izango da munduaren hortzemuga zabalean, nola ez! Ez dugu uste, horregatik esku artean dugun eleberria errealista ez denik.

Heroia ala traidorea

Agirrezabal tematua dago Mikel Lejarzari buruzko eleberria idazteko. Eleberri errealista bat. Argitaletxeko buruekin hitz egin omen zuen eta Mainer, bertako teknikaria, informazioa, aholkuak ematen hasi zitzaizkion idazle tematiari.

Mainerrek informazio zabala eskaintzen dio Agirrezabali balia dezan. Antzekotasunak eta desberdintasunak ikustaraziz, beti ere, Agirrezabalen “El Lobo”ri buruzko lana kontuan hartuz. Hain zuzen, 16 eta 17. ataletan ebazten da zelanbait esateko, errealitatearen eta fikzioa, literaturaren aurpegi ezinbestekoak “jolasean” dituen osagarrien arteko talka. Zer jaso zezakeen idazleak bere proiektua burutu ahal izateko?

Bizitza errealia eta fikzioa nahasten dituzten hiru gertakari aztertzen dira aipaturiko ataletan. Lehenengoak Borgesen ipuin labur, korapilatu bat du oinarri non literatura (Shakespeare-n Julio Zesar drama (fikzioa) eta Irlandako historiako jazoera uztartzen diren (errealitatea). Fikzioak, literaturak, errealitatean eragina baitu dio Borgesen. Argentinan idazle handiaren “**Tema del traidor y del héroe**” ipuinak, besteak beste, Irlandako askatasunaren aldeko heroi bat du aipagai Fergus Kilpatrick. XIX. mendeko ekintzaile honek iraultzan buru-belarri jardun duen arren, une larri batean traizioa egin duela badaki baina bere heriotza bultzatzen du: herriaren aurrean heroi bezala geldituko da, eta iraultzaileek hobesten dutelako jarrera hori, hots, traidorea heroia da kanpora begira, une hartan garrantzikoena zena, nahiz eta funtsean traizioa burutu. Herri mugimenduak ez du deus jakingo.

Mutatis mutandis, horrelakorik gerta zekiokkeen Mikel Lejarza satorrari ere. Hain zuzen, kotxean zihoazela ETako militanteak, bera barne, poliziaren tiroketa hartan salbu geratu zen Lejarza bere kotxekideak hilik edo zauriturik geratzen zirelarik. Une hartan hil izan balute, Lejarza heroi bezala gogoratuko zuten, ez baitzen seguruenik zabalduko satorra zela.

Bigarren aipamenak E. Carrère idazleak egiazko gertakari batean oinarritutako **L’adversaire**, nobela eta pelikula gero, du oinarri. Eleberri honetan, Mainerrek Agirrezabali kontatzen dion moduan, Jean-Claude Romand hezur-haragizko pertsona daukagu protagonista absolutua. Sendagile ospetsua da, ustez. Izan ere, engainaturik ditu

familiakoak, engainaturik bere ingurukoak. Hain zuzen, 18 urte egin ditu mediku zela han-hemenka esanez, bien bitartean urte luze haietan errepide bazterrean ezer egin gabe egonean pasatuz. Zorrak itota, Romandek erabaki krudela hartuko du. Izan ere, amaiera tragikoa izango du egiazki arazo hark. Berea jakingo zelako beldur, emaztea eta seme-alabak akabatu eta etxeari su emango dio Romandek. Ez diote heriotza-zigorra emango. E. Carrèrek urteak egingo ditu Romand espetxean elkarrizketatzen.

Gure nobelara itzuliz, Agirrezabalek pentsatzen du aurki daitekeela paralelismorik Mikel Lejarza eta Romand honen artean. Batak zein besteak izkutuan gorde dituzte euren egiazko betekizunak, bata sator lana eginez, bestea usurpatzaile garbia.

Liburuaz kanpoko hirugarren aipamena Truman Capote idazle amerikarraren narrazioa dugu. Capote nobela beltzaren maisuetako bat izan da. Eta liburua, aipatzen den lana, *Odol hotzean* deiturikoa zen. Bi gaztek hil zuten nekazari familia oso bat, zio garbirik gabe, krimen oso doilorra eginez. Zein izan zitekeen zentzugabeko hilketa haren arrazoia jakin nahirik, Capote jakin-minez haietariko batekin elkarrizketatu zen luzaroan. Bere metodoaren zorrotasuna frogatzeko gaizkileen kontra heriotz zigorra exekutatu zuten arte itxaron zuen nobela argitaratzeko. Aurreko nobelan *l'adversaire*-n erabiliko zen antzeko metodoa erabili zuen Capotek. Biotan nobela errealistak ditugu gure aurrean.

Jarrera zenbaiten kritika umorea lagun

Ia berrehun orrialde dituen eleberriak baina badu etengabe aipatzen ari garen dilemaz kanpo zer aipa. Badago adibidez, gurean noizbehinka izan ohi diren heriotzen osteko errituen inguruan kritika. Umore finez dago kontatua, hain zuzen, Agirrezabal beraren hil osteko erritua. Errituak ia-ia ospakizun itxura hartzen duen unea. Kroketaz kroketa dabil ehizean jendea Zarauzko toki hartan. Umore beltzezko pasarteak izan liteke. Bertaratzen den edo hura antolatzen duen jendearen kritika.

Umore ikuspegitik J. Idigoras euskal militante ezagunaren pasadizoak ederki daude kontatuak, bibotedun militantearen adar jotzeak barne. Xabier Amurizari buruzkoak ere orain urruti geratzen zaigun nekazari bizitza baten isla dira.

Euskal Herriko historia hurbilaren zertzelada batzuk

Gure arreta erakartzen du hasiera-hasieratik taxilariaren ikuspegitik zelako pertsona andana desfilatzen duen. Egia esatera, agertzen den politikari eta militanteen nomina ez da txikia: edozenbat izango dira hainbat jazoeraren protagonista. Hor ditugu militanteen artean: Julen Madariaga, Eskubi, Mikel Azurmendi, Mikel Lejarza, Tasio Erkizia, Jon Idigoras, X. Larena, A. Arruti, Goio L. Irasuegi, X. Amuriza, Xabier Zumalde “El Cabra”, Eneko Irigaray, Jon Juaristi, Jone Dorronsoro, Txabi Etxebarrieta, M. Onaindia, Iñaki Mujika “Ezkerra”, Josu Mugika, Paredes Manot “Txiki” eta abar. Politikoak artean, Xabier Arzallus.

Pertsonaia nagusien inguruan

Taxilaria: ez du bere buruaz idazten, kanpora begira bizi da, bere biografiak lantzen ditu. Bizitza aski laua darama. Bi gertakari amaituko dute haren eguneroko eta halamoduzko errutinarekin. Agirrezabalen nobela osatzeko haren epilogoak egiteko ardura hartzen dutenean Leirek eta biek.

Bigarren gertakari garrantzizkoa taxilariarentzat **Leire** ezagutzea izango da. Harengan taxilariak edertasuna ez ezik gaztetasuna ere, eta nagusiki, miresten ditu. Agian, denbora galdua, iragana berreskuratzearen ezintasuna, baina Leireekin abenturatxo bat izateko ere ez du bere burua ikusten. Gaztela aldera eginiko ikerketa bidaiaren beraien arteko adiskidetasuna loratuko da, hainbeste esperientzia desberdinen harian. Leirez gogoratuko da beti gizona. Honen amaierako agur goxoak izan zitekeena baina, errealismo gordinena erabiliz, ezin izango dena gertatu, adieraz lezake: **“Zu izango zara nire heroia”**

Leire taxilariak literatura munduko informazioa ematen dio taxilariari eta, batez ere, gaztetasunak eskain ditzakeen bertuteetako asko erakusten dizkigu: irekia da, bihotz zabala, aurreiritzirik gabeko espiritua du...

Taxilariaren **emazteak** nahikoa gajoa dirudi. Isiltasuna du hark bere erresuma. Baina Agirrezabal ezagutzeaz bat pizten da bere baitan halako maite-sugar handi bat. Edozein modutan bere diskrezio edo zuhertasunagatik Agirrezabalen tankera handia hartzen diogu.

Agirrezabal hiltzean dolua gordeko dio zintzo-zintzo. Bere etxean, taxilaria kuxkusero dabilela, emakume talde batek bere ametsak, “lorpenak” eta frustrazioak kontatzen dizkiote elkarri. Pasarte xaloa da.

Agirrezabalen izaeraz ez dakigu gauza handirik; nobela hain zuzen, pertsonaien izaera, jarrera, barne bizitzaz, alegia, baino **gertakarien bilakaeraz** ari baita. Dena den, hasieran, gizagaixo itxura hartzen badiogu ere, gero, burugogor, oso temati dabil “El Lobo”ren bizitzaren gorabeherak ikertzera abiatzen da, horrek dakarren ariskuekin. Emaztea eta Agirrezabal idealista bikote bezala aurkezten zaizkigu, zein baino zein. Izan ere, emazteak maite-harremanak idealizatzen ditu, Agirrezabalek berriz, idazle bizitza edo nahiago bada, esku artean duen eleberri proiektua.

Laburbilduz, taxilariaren emaztearen eta Agirrezabalen artekoa, errespetu guztiz esanda, GKE edo moja-fraile seglarren arteko amodio platonikoa dirudi.

Maidier. Ez da berari buruz, argitaletxeko arduradunetako bat da bera, ñabardura handirik eskaintzen. Bere lanbidearen ezagutza gorai patzen da, besteak beste. Zauriak sendatzen geratu da ospitalean.

Delia eta **Joxe Mari** bikoteak, nobelako pasarte alai eta koloretsua ematen digute. Topikoetatik haratago, patuaren aldreskeriak erakusten dizkigute: egon behar ez diren lekuetan agertzeko zoritxarra dute.

Errealitatea, fikzioa eta euskal idazlearen patua

Zer den errealismoa, zer den fikzioa bezalatsu galdetzea bezain aspergarria dugu, irakurlearen talaiatik begiratu. Eskuliburu bezala, interesgarria izan liteke eleberri edo idazte motei buruzko sailkapena. Hortik at, eztabaida antzua bezain gogaigarria izan liteke. Noiz ari den idazlea errealitatea islatzen noiz bere kasaka fikzioa, bere mundu paraleloak islatzen, zer du axola?

Nago, errealista kontzeptuaren barruan idazleak ironia eta salaketa puntu batekin, idazle ofizioaren onurak eta tristurak salatzen idatzi duela nobela hau. Eta errudunak

markatzeko lan arriskutsuan, editorearen betekizuna azpimarratuko genuke. Editoreak edo bere staffeko norbaitek agintzen du zer nobela mota argitaraziko duen: zein pasarte kendu edo erantsi. Luze-laburrak eta abar. Bere eskubidea du, bere dirua baitago nagusiki jokoan. Baina egiteko erak daude. Idazlearen helburu literarioak oztopatu gabe. Hori errealismo gordin-gordina da! Izan ere, editoreak berak badaki ultimum bat emateko gai dela. Agirrezabalek garbi eduki beharko du: “edo eleberri errealista bat idazten zuen edo ez zioten gehiago argitaratuko”(72). Horra editorearen hitz ezin zuzenagoak.

Beraz, narratzailearen aldetik badago halako samintasun bat sortzaileak gaizki tratatzen direlako. Aguirrezabal bezala. Idazlearen patua editorearen esku geratzen da nobela honetan. Kopina dirudi haren sarean harrapatuta. Pozarren ageri da editorea nobelak hartu duen oihartzunagatik, bestelako zailtasunei gehiegi erreparatu gabe.

Oro har, idazlearen patua, alderdi krematistikotik begiratu, aski triste da Euskal Herrian. Hartaz esan daiteke, Bibliako hitzekin adierazita: “asko dira deituak gutxi hautatuak”. Eta gutxi batzuk baino ez dira bere lanetik bizitzea lortzen dutenak. Gehienek inoren laguntzaz (emaztea, beste lanbide erantsi bat eta abar) bizi behar dute, eleberrian barrena zehazten den legez.

Hori salatu nahi du narratzaileak. Liburuaren izenburua parafraseatuz, esan daiteke ez dela errealista pentsatzea euskal idazle batek bere lanetik bizi ahal izango duela. Besterik pentsatzea, gaur gaurkoz fikzioa da.

Errealismoa eta taxilaria

Errealismoaz ari garelarik, zuzen edo zeharka, bitxia da taxilariaren figura aztertzea. Izenik ematen ez zaion kotxe gidari honen crescendo intelektuala onartuko luke errealismoaren ustezko galbaheak? Literaturan beti onartu izan dugu, lan baten egiantzakotasuna, hots, gaztelaniaz “verosilimitud” deitzen dugun terminoaren abaroan.

Verus (egia) eta similus (antzekoa) latinetiko hitzek ematen digute bide errealismora hurbiltzeko. Hau da, egia izan gabe hari hurbiltzen dena. Gure azter lanera itzuliz, nobelaren hasieran, biografia aski arruntak eta ematen dituen argitasunak isuri ditu protagonistak. Geroago datoz hari gidoigileak ematen dizkion lizentziak: taxilariak literatur irizpide garbiak ditu bai eta epilogo bat idazteko gaitasuna ere. Agian ohikoak ez diren trebezia intelektualen jabe den taxilaririk izan izango da munduaren hortzemuga zabalean, nola ez! Ez dugu uste, horregatik esku artean dugun eleberria errealista ez denik.

Iritzia

Iruzkina honetan aipatu dugun bezala, eleberria hastapenean ez du agian, gordin esanda, itxaropen handirik eskaintzen haren bilakaeraz. Lerro dezente dira Euskal Herriaz, *pro domo sua* dihardu nobelak, alegia “euskal gaia” deitu izan denaren inguruan. Ematen du espiritu transzendentea lanaren bizkarrezurra izango dela: Euskal Herria eta haren kontrako betiko etsaien azpijana. Are gehiago, ia hastapenetik bertatik taxilariaren bitzita, literatur gaia baino beste edozer gai aski monotonoz ari zaigula ohartzuz. Etengabe, gure historiaren hurbileko pasadizo eta gertakari, gehienetan Burgosko prozesuaren aurreko ezker abertzalea protagonista delarik, ematen zaizkigu aurrerago zerrendatu dugun bezala.

Badago, ardatza den argumentuaren inguruan, egilearen kezka gazteriarri erakusteko Euskal Herri militantearen historia hurbila eta ez horrenbestekoa, non borroka armatuaren alde eta kontrakoak agertzen diren implizitoki, beti ere demagun era orekatuan, zuribide bezala orduko ekintza odoltsuak eta besteak orduko testu inguruan txertatu nahirik. Irakurleak epaitu beharko du, hala nahirik, protagonistaren ustezko asmo hori bete izan den.

Erraz irakurtzen den nobela, zalantzarik gabe erabiltzen duen euskarak balioesten du helburua¹

¹ Erratak daude, 62, 70, 82, 118, 128 eta 166. orrialdeetan. Hurrenez hurren, eta orrialdez orrialde: “**zen eta**” soberan dago; gero, “**errelista**” irakurtzen dugu; bestalde, “**étranger**” hitzak azentua behar du; errata dira, azkenik, “**Agirrezabalelek**”; “**Indalencio**”, eta “**La Abercan**”.

IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/eibar>



@EibarLiburutegi



@EibarkoLiburutegia



@eibarkoliburutegia



@eibarkoliburutegia



Juan San Martin Liburutegia

Bista Eder, 10 (Eibar)

Tel. 943 70 84 37

liburutegia@eibar.eus

